


Astekaria

BARREN elgoi

Sehaskatik eskolara



SAUNA
MASAIA
SQUASH
IGERILEKUA

Olaizaga Kiroldegia

MATRIKULA ZABALIK

FRONTOIA
KARATEA
AEROBIC
MUSKULAZIOA

Elkin Kirolari

San Roke, 1. ☎ 74 13 61

3 LAU HANKATAN

"Gure errekek pozoitzen ditugunean, bestaldera begiratzeko ohitura agertzen dugu" **Alberto Ansuategi**.

6 ERREPORTAIA: HAUR-ESKOLA, NOREN ESKU?

Ikastolak egin ahalak egin ditu haur-eskola zabalik mantentzearen, baina defizitari aurre egitea neketsuegia izan da.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: UMEAK HAURTZAIDEGIRA ALA...?

Jose Luis Ibarzabal: "Umetxoak haurtzaindegian etxean bezain ondo egoten dira".

Arrate Iriondo: "Neskamearen bidez, umeak arreta pertsonalagoa jasotzen du".

12 BERBETAN: Adrian Langara

"... ETA XAUEN HERRIRA AILEGATU NINTZEN"

14 KIROLA:

GAIA: ALDAKETAK FUTBITO TXAPELKETAN

ELKARRIZKETA: **Martin Lopez de Larrainzar**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

KoKoE: KOMIKIAREN MUNDUAREKIKO LILURA

17 KULTURA

EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PROPOSAMENAK

FARMAZIAK:

9, larunbata: **BIDASOLO**

10, igandea: **BIDASOLO**

11, astelehena: **YUDEGO**

12, asteartea: **YUDEGO**

13, asteazkena: **YUDEGO**

14, osteguna: **YUDEGO**

15, ostirala: **ORMAZABAL**

OKINDEGIAK:

10, igandea: **EIZAGIRRE**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67


Ikastola.....74 27 00


L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

TXANDAK

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Zertan gabiltza?

Eguraldiak txarrera jotzen duenean kaiok itzas nahasiarengandik ihes egiten dute eta, ibaian gora, bailarak eskaintzen duen babesaren bila inguratzen dira. Baina kaiok, kanpandorreko useok ez bezala, garraxi ozenez jazten dituzte herriko bazter guziak, hiltzorian aurkitzen den ibaiarenganako dugun axolagabekeria salatu nahian, agian.

Azken hilabeteotan zenbait arrain hilik agertu omen dira gure herriko erreketan, baina honek, beste zenbait gauzak bezalaxe, ez du behar bezalako erreakziorik eragin gure artean. Hizki handiz idatzitako arazoek kezkatzen gaituzte. Ozonoaz, marea beltzaz edota euri azidoaz arduratzen gara, baina, gure errekek pozoitzen ditugunean, bestaldera begiratzeko ohitura agertzen dugu.

Gatzagatik itsasora bitartean, bailara osoko zikinkeriak jasotzen ditu Deba ibaiak eta, honezkero, geure zaborren garraiabide merketzat jotzen dugu guztiok. Ibaiaren zenbait gunetan aspaldian ez da inongo

arrainen arrastorik izan, zabor boltsaren batetatik ihes egindako legatz-bururen bat izan ezik. Gure ekosistemaren barnean bizi iturri garrantzitsu bat izan beharko lukeena, gure erruz, zabortegi batean bilakatu da.


Lege, arau, isun eta bestelakoek akaso lagun ahal izango dute egoera hau zuzentzen, baina, hala ere, geure inguruarekiko jarrera aldaketa bat beharrezkoa deritzot. Bada garaia mendi, ibai, hondartza eta guztiak gure bizitzan funtsezkoak direla ulertzeko.

Ez dakit herriko leihuetan eskegita dauden izaren azpian luzatzen den ibai honek zer suposatzen duen zuentzat. Ziur asko inoiz ohostuko zizuen baloi, pilota edo halakoren bat. Norbaiti hori baino gehiago ere bai. Zenbait bizitza ere eramanak ditu zorigaitzeko ur korronteak. Baina, hala ere, zerbait majikoa badu ibaiak, denboraren legeak hautsi eta menditik itsasorako bidean etengabeki darraien ur jario honek. Beraz, zertan gabiltza?

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldegi
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Jesukristok apaizak zelibe nahi ditu

Itun Zaharrian mezpreziatua zen zelibato edo birjintasuna. Hau, argi ikusten da, Jefte eta bere alabaren irakurra. (Juezak 11, 34-40). Jefte, Israelgo buruzagi izanik, Jaunari eskaintza egin zion. Bere etxetik irtean zion lehena; Jaunak etsaiak gudan bere esku jartzen bazitzaion. Bere alaba izan zen, on hartzera irten zitzaion lehena, dantza eta tinbalekin eta bere aitaren ahotik jakitean zer eskaintza eginga zion Jaunari esan zion: "Nere aita, zure ahoa Yabe-ri zabaldu badiozu, egin nerekin eskainia". Eta gaineratu zion: "Egin zaidazu grazia hau: utzi nazazu bi hilabetez, nere lagunekin mendietan zehar joaten, nere birjintasuna negartuaz".

Jesukristo, bizitzeko tankera berri baten sortzaile izan zen, ordurarte ez ezagutua. Bera zelibe izan zen. Baita bere Ama ere, Birjina Maria. Zelibe Jose dohatsua, justua zena. Juan Bataiatzailea, aintzindari. Juan ebanjelaria, bere buruagatik hainbeste bider esan duena: "Jesusek maite zuen hura", Kurutzeraino jarraitu eta Jesusek bere Amaren gordetzaile egin zuena. Eta Pablo, jendeen apostulua. (I Korintotarrei 7, 1-9, 32-35).

(Mateo 19, 10-12) Jesusek esaten du batzuk, eunuko egin direla edo ezkontzea utzi dutela, "Zeruko erreinuaren maitasunez", eta eskatzen du: "Ulertu leikenak, uler dezala" ... Berak, jakinarazten ari dan, bizitza berri hau".

Eta Pedrok esaten dio: "Hara, geure gauzak utzi

egin ditugu guk, Zurekin joateko. Jesusek erantzun zien: Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinuagatik etxea, emaztea, anai-arrebak, aitamak, edo haurrak uzten dituenak, ez da geldituko askoz gehiago hartu gabe orain mundu honetan; beste munduan, berriz, betiko bizitza izango du: (Lukas 18, 28-30).

(Mateo 22, 23-30) Eta Saduzear batzuk galdetu zioten: Hilen berpiztea bada, zazpi anaietatik, noren emazte izango da? Jesusek erantzun zien: Oker zabilzate, ez baituzue ezagutzen, ez Liburu Santua, ez Jaungoikoen ahalmena. Izan ere, bistuerakoan ez da Ezkontzarik izango: zeruko aingeruak bezala izango dira. Eta non, Jesusek esandako honengatik, birjintasanari, birtuta edo aingeruzko dohai

ESKUTITZAK

izena ematen hasi zaion.

Eta Pablo apostuluak: (Korintotarrei 7, 32-35), "Ezkongabeak, Jaunaren gauzetan du ardura, nondik Jaunari atsegina emango; emaztedunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, gorputz eta arima Berarentzat izateko".

Jesus, langile izanik, lana utzi zuen, rabino egiteko, Zeruko Erreinuagatik.

Zeruko Erreinuagatik kastitateak, pertsonaren bihotza askatzen du; Jainkoarentzat duen preferentzia maiteagotasuna, erakusten du, modurik argienean simbolizatzen du eta osotasunez Eliza Gorputz Mistikoa Buruarekiko batasuna; Emaztearena betiko Senararekin. (Ebanjelika Testifikazioa 13).

Mari Carmen Garate

PESA GRUPO

BONOBUSAK eskuragai urriak 1etik aurrera

- 1.- EIBAR - ELGOIBAR - DONOSTIA (40 bidaiak) 19.800 pta.
- 2.- EIBAR - BILBO - EIBAR
 - 10 bidaiatako bonoa 3.500 pta.
 - 40 bidaiatako bonoa 11.000 pta.

IKASLEENTZAT ABONOAK

- 1.- EIBAR - DONOSTIA
 - Asteko egun guztietarako eta ordutegi librearekin
 - Hiru hilabetetako prezioa 37.500 pta.

Informazio gehiago nahi baduzu (943) 11 21 31 - (94) 416 87 77



Koldo Lizarraldek laga digun erretratu hau Errosario kalean ateratakoa da 1919. urtean. Urte hartan Errosario kalekoek demaseko jaiak antolatu zituzten. Gainera, argazkiak erakusten duen bezala, partizipazioa izugarritzkoa izan zen urte hartan. Jaien erregina, ohorezko damatxoak, presidenteak, gobernadoreak eta antzerako pertsonaiak aukeratu zituzten jaietara nolabaiteko haunditasuna ematearren. Errosaixo kaleko jaiak makalak ez zirela demostratu nahian edo, zortzi eguneko jaiak antolatu zituzten.

Argazkiaren ezker eta eskuma aldean, ilaran agertzen diren gizonezkoak "bokalak" ziren. Beraien ize-


nak ordenean ez badakigu ere honoko hauek bete zuten paper hori urte hartan: **Gregorio Gurrutxaga** "Olazarra", **Felipe Mugerza Elustondo** "Ruso", **Juan San Martin Unanue** "Alday", **Julio Etxaniz Arrieta** "Sastria", **Isidra Mugerza Unanue** "Kakume" eta **Paula Mugerza Unanue** "Kakume". Presidente lanetan bi hauek jardun zuten: **Rafael de la Cruz** eta **Casimiro Osoro Amenabar**.

Eta azkenik, jaien erregina, zuriz jantzita dauden bi emakume horien artetik bat izango delako susmoa daukagu. Urte hartan **Generosa Urreta Garate** izan zen erregina.

**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30



Haur-eskola, noren esku?

Elgoibarko haur-eskola, orain dela gutxi arte Ikastolaren ardurapean egon dena, norantz jo ez zekiela gelditu zen Ikastolak haur-eskolaren titulartasuna lagatzeko behin betirako erabakia azaldu zuenean. Gurasorik gabe gelditzen den semearen antzera, momentu oso larriak pasa behar izan ditu haur-eskolak.



↳ Haur-eskolaren helburua umeen garapen armonikoa lortzea da.

Elgoibarko haur-eskolan 0 eta 3 urte bitarteko 20 haur dago gaur egun. Gehieneko kopurua 25 haur dira aurtan, baina iaz adibidez, 36 haur egon ziren bertan. Maria Pilar Beristainek, Susana Langarak eta Marilu Osorok aspalditik dihardute haur-eskolan lanean. Hasieran, haurzaindegiak emakume langileen beharrei erantzuna emateko sortu arren, izaera aldatu eta hezkuntz zentru bilakatu dira. Horregatik egokiago iruditu zaie bertoko langileei haur-eskola deitzea eta ez haurzaindegia. 400 metro karratuko espazioan, jangela, logela, aldagela, jolasgela eta psikomotrizitate gela daude. Honetaz gain, kanpoan 500 metro karratutako parkea dute jolasteko leku estalia-

rekin. Haur-eskolaren helburu nagusia, umeei nortasunaren garapen armonikoa (soziala, afektiboa, intelektuala eta fisikoa) lortzen laguntzea da. Beraz, helburua ez da haurrak zaintzea soilik, hezitzea baizik.

Ikastolarena ala munizipala

Elgoibarko haur-eskola Ikastolaren esku egon da hasera haseratik. Orain dela gutxi arte, haur-eskolaren etorkizuna kolokan egon da, Udalak haur-eskolaren ardura hartu duen arte, alegia. Diru iturriei dagokienez, Aldundiaren eta Udalaren dirulaguntza jasotzen du. Beste diru sarrera garrantzitsua gurasoei kobratzen zaien hileko kuota litzateke. Dena den, urteko gastua ez da jasotako diruarekin betetzen. Izan

Aspalditik datorren arazoa izaki, Ikastolakmaiz azaldu du haur-eskolaren ardura gainetik kentzeko nahia baina ez du gaurdaino lagatzeko erabakia hartu.

ere, haur-eskola defizitariora da. Arazo hau ez da gaurkoa, aspaldikoa baizik. Ikastolak egin ahalak egin ditu haur-eskola zabalik mantentzearen, baina defizitari aurre egitea, urtero, neketsuegia izan da Ikastolarentzat. Aspalditik datorren arazoa izaki, Ikastolak maiz azaldu du haur-eskolaren ardura gainetik kentzeko nahia baina ez du gaurdaino uzteko erabakia hartu.

Egoera honek, noski, haur-eskolako langileen lan baldintzak gogortu egin ditu. Azken urteotan zurtasunik gabeko egoeran egin behar izan dute lan. Izan ere, haur-eskolako langileek Ikastolako plantilan sartzerik ez zutenaz, Ikastolak, beraien egoera zertxobait ziurragoa izatearren,

Donostiako prestaziozko zerbitzu enpresa baten barne sartu zituen. Enpresa horren baitan bi urtez egon ondoren, Mariluk, Maria Pilarrek eta Susanak beraien enpresa propioa sortzea erabaki zuten.

Ikastolak bere aldetik, behin eta berriz, haur-eskola munizipaltzea eskatzen zuen. Aukera hori gauzatzea ezinezkoa izan zen, langileak funtzionari bihurtzea ekarriko baitzuen horrek. Horrela nolabaiteko konponketa bilatu nahian, Udalak bere gain hartu du haur-eskola zabalik mantentzeko ardura. Izan ere, Udalaren filosofia herriko zerbitzu publikoak gordetzearena izan da. Hortaz, haur-eskolako langileek kultura zinegotziarekin, Gillermo Garatekin, hitz egin eta beste herri batzuetako esperientziak aztertu ondoren Udalak,

LOGSE indarrean sartu denetik hezkuntza sailaren barne geratu dira haurtzaindegiak eta horrek, izan du eraginik Udalaren erabakian.

urte bukaera arte, bere horretan eustea erabaki du haur-eskola. Batetik, bost langile izatetik, hiru izatera pasa dira eta bestetik, gurasoen 27.000 pezetako kuota, 23.000 pezetara (10 hilabetetan) jeitsi du Udalak. Gainera, LOGSE indarrean sartu denetik hezkuntza sailaren barne geratu dira haurtzaindegiak eta horrek, izan du eraginik Udalaren erabakian. Urtarrietik aurrera beraz, haur-eskolaren titulartasuna Udalaren esku geratuko da eta gestioa, lehiaketara aterako den prestaziozko zerbitzu enpresa baten esku. Egoera berri honetan, haur-eskolak abantaila asko izango ditu: batetik, Aldundiaren diru laguntza bizkorrago jaso ahal izango dute eta bestetik, etorkizunean, sare publikoan sartzeko aukerak ere ugariagoak izango dira.

Egun bat Haur-Eskolan

7,30-9,30

Haurrak heltzen diren heinean agurtu eta gosalduek ez dutenei gosaria eman. Txikiak lotara eta gainontzekoak jolasera.

9,15-11,15

Tarte honetan haurrek jolasean jarduten dute. Batzutan jolas zuzenduak izaten dira (plastilina, ipuiak, olerkiak, abestiak, txotxongiloa, psikomotrizitatea...) eta beste batzutan libreak (kopinak, sukaldeko tresnak...). Beste batzutan parkera irteten dira.

11,15-11,30

Jolas gela jaso eta jangelari itxura ematen zaio.

11,30-12,30

Haurren bazkalordua.

12,30-1,30

Haurrak oheratu.

1,30-3,30

Bazkarikoa jaso eta txikiakentzako frutak prestatu. Siestatik altxatzen diren heinean jantzi eta prestatu.

3,30-5,00

Meriendako ordua.

5,00-6,00

Jolasak egiten dira edota parkean jolasten dute. Tarte honetan haurrak jasotzera etortzen dira gurasoak.



Langileak estu ibili dira Udala haur-eskolaz arduratu den arte.

Umeak hartzaindegira ala ...?

Garbi dago denok ez gatzozela bat hartzaindegi baten beharra edo egokitasunaz hitzegiterakoan. Dena den, ezin ukatu gaur egun heziketa gune bezala hartzen direla.



Hartzaindegien aurka-ko jarrerak horrelako komentarioetan isladatzen dira: "Umea ondoen bere etxean", "Nola leike, hain txikia eta guarderixan... ume koittaua", "Hartzaindegia luxu bat besterik ez da".

Idazki honen bitartez ahaleginduko naiz esaldi hauen azpian dauden argudioak desegiten.

Hartzaindegia beharrezko instituzioa eta alternatiba egokia dela planteiatzen dudanean ez dut inolaz ere familiaren aurka jartzen. Batak ez du bestea ukatzen, eskolak familiaren lana ukatzen ez duen bezalaxe. Bakoitzak ditu bere betebeharrak eta fruitu oparoenak elkarlanetik etorriko dira. Umetxoak hartzaindegian etxean bezain ondo egon daitezke, eta egoten dira: Hori bai, inoiz ez du familiaren papera ordezkatu. (Horrela ez balitz izango beste instituzio moeta batetaz arituko ginateke).

Bestalde, hartzaindegi baten inguruan gatazkak egon izan direnean (publikoa/ez publikoa, kuoten kopurua...) horrelako argumetoak entzun dira: Hartzaindegiak luxu bat direla, biok lana egiten dutenean umea lagatzeko toki aproposa, eta etxe horretan bi diru

iturri daudenez... egin diezaiotela beraiek frente. Horrelako argumetoek gaur egun hartzaindegiek betetzen duten papera ukatzen dute, hauek eskeini dezaketen zerbitzua mugatuagoa izatea justifikatuz.

Hartzaindegia beharrezkoa da, inoiz ez luxu bat, haurren garapenarekin batera gurasoena ere posibilitatzen duelako eta ez profesionala soilik, pertsonala ere bai.

Baztertu egin behar da betirako hartzaindegia biltegi gisa, haurrak uzteko gordelekutzat hartu duen ideia. Hartzaindegiaren hezkuntza funtzioa zalantzarik kanpo dago (ez dezagun hezkuntza matematiketara mugatu) eta gaurregungo Hezkuntza sistemen legeak horrela jasotzen du, honek duen izakera konpentsatorioa azpimarratuz; hau da, hasierako desberdintasunak gu-txitzeko edo desberdintzeko duen gaitasuna eta honek dohako zerbitzu publiko ez diskriminatzaile baten beharra planteiatzera narama.

Azkenik, ezin gelditu gure herriko hartzaindegiko andereñoen lan bikaina aipatu gabe eta denon eskura egongo litzatekeen hartzaindegi zerbitzu bat lortzeko deia egin gabe. Hartzaindegia! Bai horixe.

Jose Luis Ibarzabal



Gai honi buruz idaztea zaila iruditu zaigu, batipat ez daukagulako hartzaindegiaren aurkako ez iritzi eta ez jarrerarik.

Kontutan izan behar dugu, umeak ondoen beraien gurasoekin egoten direla. Hori da egokiena, baina ez ohizkoena gaur egun. Beraz, horrelako aukeraketa egiterakoan kontutan izan behar da gurasoen jardunek sortera dituzten arazoak.

Gure kasuan biok lantoki ezberdinetan eta ordutegi zehatzik gabe lan egiten dugunez, ezinezkoa egiten zaigu hartzaindegiko ordutegira egokitzea. Hori dela eta, gure laneko egutegi eta ordutegira egokitzuz, gu falta garenan umea zaintzeaz gain, etxeko lanak egingo dituen pertsona behar dugu.

Hartzaindegiko aukera merkeagoa dela onartu arren, guri errentagarriagoa gertatzen zaigu

"neskamea"ren aukera. Bestalde, neska-mearen bidez gure etxeko lanak erraztea lortzeaz gain, umeak arreta pertsonalagoa jasotzen du.

Hala ere, aipatu behar bere garaian hartzaindegiko aukera kontutan izan genuela eta positibotzat jo arren, ez zuela gure arazo partikularra konpontzen goian aipaturiko arazoak medio.

**Arrate Iriondo
Mariano Irigoyen**




Umeak hartzaindegira ala ...?



Sara Soto

20 urte, ikaslea

Lagun batek Eibarko hartzaindegian esperientzia txarra izan zuen. Elgoibarkoa ez dut ezagutzen baina, beharko banu, eramango nuke haurra.



Aitor Eguren

23 urte, ikaslea


Gurasuak kanpuan lanian baldin badaude... Nik uste dot hobeto guarderixan, beste umiekin batera ego-tean eta elkar ezagutzean.



Beatriz Zendoia

55 urte, etxeoandrea

Bakoitzak ikusi behar du nora eraman umeak baina nik uste dot umiak gustura ibiltzen diala hartzaindegian. Gainera Ikastolara juteko hobeto preparauta egoten dia.



Patxi Zabala

39 urte, txoferra


Nik semea hartzaindegian euki nuen. Orain Ikastolan dago. Hartzaindegian umiak elkarrekin egoten ikasten dute. Edukazioa jasotzen dute.



Flori Ortiz de Villalba

50 urte, etxeoandrea

Hartzaindegiak ondo daude eta ondo zaintzen dituztelakoan nago. Baina neskamea egun osoa umearekin egoten da eta zainketa ere hobea da.



Salvador Zelaia

62 urte, iturgina

Guarderixia hobe. Han beti umiak jartzen dia martxan eskolara eruteko. Guarderixak ikusi ditudaz nik. Han umiak elkarrekin hobeto.

I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

FADEK
SOLARIUM

Enosario Kabea, 3.5 behe
74 26 92 *Elgoibar*

JAUREGI

INPRIMATEGIA

KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko,20.
Tel: 74 13 29

LANBROA

elgoibar

Errosaixo kaleko jaixak

Zubi-Ondok antolatuta, astelehen eta astearte arratsaldean 5 minutuko xake partidak jokatu ziren. 28 pertsonak hartu zuten parte bi txapelketetan. Lehen eguneko irabazlea Richard Roa izan zen eta bigarrenkoa, Jon Esnaola.



Errosarioko Amabirjinaren bezpera egunean, irudiaren aurrean otoitz egin zitzaion Amabirjinari omenaldi gisa. Juanito Gorostizak eta Maite Vallejak aurkezpena egin ondoren, bertara hurbildu ziren kaletarrek eta gainontzekoek otoitz egin zioten Amabirjinari. Errezuaren ostean, Elgoibarren hildakoen alde Salbea abestu zuten. Ekitaldia amaitzean, datorren urtean ere, bertan batzeko desioa azaldu zuten antolatzaileek.



Haritz Dantzari Taldea "Nafarroa Oinez" en arituko da

Haritz Dantzari Taldeak "Nafarroa Oinez" ospakizunaren baitan, larunbatean, hilak 9, Alakiketan ikuskizunean parte hartuko du Altsasuko frontoian. Igandean, berriz, hilak 10, eguerdian Errosario kaleko jaien barruan, nagusiei eskainitako omenaldian dantza egingo dute eta arratsaldean, Zaldibiko Aurreku txapelketan izango dira.

Bestetik, gogoratu, argazki zaharren bilduma osatzeko, "Azkue" dendan laga behar direla argazkiok urriaren 15a baino lehen.



AZKUE

Edurne Bilbao, BARRENEko Erredakzio kontseiluko kidea, pasa den irailaren 25ean ezkondu zen Jose Mari Kortaberriarekin. Gure aldetik, Zorionak ezkonberriei.

Eskulanean saiatzen gara

Muruamendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45


Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak

Urasandi 12 beheak
Tel-Fax: 74 04 89

Hiru lapurreta ahalegin San Frantzisko kalean



Asteartetik asteazkenera bitarteko gauean lapurretan egin zuten herriko hiru dendatan. *Yudego* drogerian, ateko kristalean egin-dako zuloaren bitartetik lapurrak sartu eta karterak, bisuteria artikulak, makilak kaxak eta antzerakoak ostu zituzten. Lapurrek *Maite*

eta *Mimox* dendetan ere egin zuten lapurtzeko ahalegina. *Maite*-n kristalari itsatsitako lamina bati esker eta *Mimox*-en segurtasun kristalei esker kristala pitzatu egin zen baina ez zuten, zorionez, sartzerik lortu. Ertzantza hiru lapurreta hauek ikertzen ari da.

HIESaren arazoaren aurrean, familia ezinbestekoa da

Bilboko T-4 taldeak eta Elgoibarko Errotatxok, HIESari buruz, Elgoibarren burututako ikerketa-inkestaren emaitzak kaleratu dituzte. VIHak eragindako pertsonak familia giroan zein hurbileko inguruan izan ditzaketen arazoaren prebentziorako burutu da inkesta.

Inkesta herri osoan zabaldu ondoren, 250 erantzun jaso dira. Hauetatik, gehienak, 20-40 urte bitarteko pertsonen emandako erantzunak izan dira. 250 horien artean, 24 pertsonak VIHaren proba egin dutela onartzen du.

Gehiengoak, norbera seropositibo izanda, bere egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoa beharko lukeela adierazten du.

Horretarako familia aipatzen dute lehendabizi eta lagunak ondoren.

Senitartekoren bat edo hurbileko pertsonaren bat kutsatuta egonez gero, gehienek "inpotentzia sentituko lukeela" erantzun dute eta bere jarrera "laguntza ematea"rena litzatekeela aitortu dute. Senitartekoaren gaixotasuna noiz jakitea nahiko lukeen galdetzean, erantzuna, "lehenbait lehen" izan da "une oro lagundu ahal izateko". Dena den, bostetik batek "arrikuari aurre egiteko" erantzun du.

Errotatxok 40 urtetik gorako informazio eza aipatzen du inkestaren ondorio gisa. Era berean, familia giroari ematen zaion garrantzia azpimarratzen du Errotatxok.

Garapen pertsonalari buruzko ikastaroa

Urriaren 22tik aurrera garapen pertsonalari buruzko ikastaroa hasiko da. Klaseak ostiralero izango dira, arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean. Klaseetan, jolasak, gorputz espresioa, sormena eta psikoterapia landuko dira. Informaziorako deitu 74 08 96 telefonora (Pedro) edo 79 35 76 zenbakira (Jose Luis).

8 autobus Kilometroetara

Eguraldi kaxkarra lagun, burutu zen joan den igandean Ordizian Kilometroak 93. Hala ere, Elgoibarko Izarrak antolatutako 8 autobusak bete egin ziren eta guztira 425 lagun hurbildu ziren Ordiziaraino. Dudarik ez dago horrelako ospakizunek arrakasta handia izan ohi dutela, eta egon badagoela ondo pasatzeko arrazoirik.

Gestio Eskolako kurtsoaren aurkezpen ofiziala

Hilaren 8an, ostirala, Gestio Eskolaren kurtso hasierako ekitaldi ofiziala egin zen. Dena den, Gestio eskolaren lehenengo ikasturtea joan den irailaren 15etik dago martxan. Ekitaldiaren agurra eskolako zuzendari den Jose Mari Ulaziak egin zuen. Ondoren, Donostiako Deustuko Unibertsitateko Erretoreak, Dionisio Aranzadik, "Enpresa gizona gaur" izeneko gaiari buruz jardun zuen inaugurazio klase gisa.

Lehen promozio honetan 42 ikasleko klasea osatu da. Hauetatik 23 Deba Behekoak dira, honela banatuta: 8 Elgoibarkoak, 10 Eibarkoak, Ermuko 1 eta Plaentxiko 1. Gainontzeko ikasleak Deba Garaikoak eta Donostia ingurukoak dira. Ikasle goaren gehiengoak ikasketa ertainak bukatu berri ditu eta ikasleen batzbesteko adina 18 urtekoa da.

"... eta Xauen herrira ailegatu nintzan"

Adrian Langara izena ez zaio, beharbada, ezaguna egingo askori. "Xauen bidaiak" esaten badugu, norbaitek inoiz nonbait entzuna edo irakurria izango du, agian. Barraskiloak bezala, nora joan bertara darama etxea 27 urte

dituen elgoibartar honek. Aurretik kamionero eta pintore ere izana da. Baina gaur egun, zaletasuna zena ofizio bihurtu du. Bidaiak egiten irabazten du eguneroko ogia. Entzun, entzun kontatu dizkigunak, ea nora garamatzen...

-Adrian, kontaguzu nola hasi zinen

- Asmuak 18 urtekin edo hasi zian, baina ondiño ideia konkretu barik. Ezagutzen naban holako kon-tuetan ibiltzen zan beste talde bat "Aerogitarra" baina hortik aparte ezer. Autobusen karneta atera naban eta 19 urtekin *Koska* berbena taldiari furgonetia erosi nion. Literak preparau nitxun 7 lagunentzako eta holaxe hasi naban nere lehe-nengo esperientzia. Gero, Siria-Jordania ibilbidia itxen zaban furgonetia erosi naban eta enpresa batek antolatu zaban orain daka-ten kamioia "vivienda-cara-vana" modura. 17 lagun jun leikez barruan lotan.


-"Xauen bidaiak", nondik dator izena?

- 18 urtekin motxilia hartu eta erdi auto-stopian Marruekosera heldu nintzan. Han egun gutxi nakan eta dirua ere, tamainan. Halaxe, Xauen izeneko herri batera ailegatu eta han lau-bost egun pasa ondoren, berriro etxera.

Esperientzia fuertia izan zen, baina aberatsa ere bai. Izena hortik dator.

-Nola antolatzen dituzu bidaiak?

- Neguan hegoaldera. Kamioia ez da oso komo-dua eguraldi txarrakin ibiltzeko. Udaran urtero Txekosloba-



"Marrokixak andaluzak bezelakuak diaz, oso irekixak. Korzegakuak euskaldunon antzerakuak, mesfidati xamarrek hasieran"

kiara joaten gara, gero Cor-cega-ra, Noruega, Holanda eta Belgika ere egin ditugu. Marruekosera? Bueno! Hamabi aldiz gutxienez! Datorren urtian Breña eta Eskoziara juteko asmua daukagu.

-Eta eguneroko egitaraua?

- Planteamendua ez da egunero tokiz aldatzea. Atlas-ean gaudenean, adibi-dez, batzuk treking piskat egiten dabe, beste batzuk bizikleta hartu eta irteeraren bat... desertura ere hiru bat egunerarako joaten gera. Programia aurretik erabaki-tzen da, jende tipo ezberdina

biltzen da eta bakoitzaren gustuko planak itxen saia-tzen gera.

-Zergatik "gera"? ez al zara zu bakarrik ibiltzen?

- Bueno, urte osoan zehar ni nabil baina udan jende gehiago gabiltza. Badago bat telefono deiez arduratzen dana, eta beste txofer bat ere bai.

-Ze jende tipo joaten da "Xauen" bidaietara?

- Gehienbat 25/27 urte ingurukoak. Azken boladan 40/45 urte dituztenak ere etorri jataz. Danak dakixe ze tipotako biyaiak diazen, kon-bibentzia, literetan lo egin...

-Ez al da arazorik sortzen jendian artian?

- 15 eguneko bidaia batean nahiko erraza da elkarrekin bizitzia. Bi per-sonen arteko "rozia" badago piskat banatu eta kitto. Ara-zuak sortzen diaz lana tal-dietan antolatzen dogunian, bazkaria, fregaua... Askotan talde batek kale itxen dau eta bestiak moskeau itxen diaz. Holako kasuetan moderadoria izan bihar zera, eta tokia eman gauzak eskuetatik ihes egin baino lehen.

-Nola konpontzen zarete hizkuntzarekin?

-Txekoslobakian, bueno, Txekian eta Eslobakian, azkenaldian gaztelera ikas-ten ari dan bertako neska batekin ibiltzen gera. Marruekoson hizkuntz-ensa-lada bat egiten dogu eta ber-tan ere badaukagu erdera dakien lagun bat, Hassan. Inportantia da kontaktuak eukitzia.

-Zein da egin nahi zenuke-en bidaia?

- Taldiakin, denbora baten Moskura begira egon nintzan, baina oin ez dau egoeria juteko bezela. Nere kontura Hego-Amerikara, Peru edo Bolivia aldera eta Keniara baina desertutik, Afrika osoa karreteraz zeharkatuz.

Jasone Osoro

Andoni Segundo

Irakaslea



- **Zenbat urte irakaskuntzan?**
- Hamabost.
- **Zer egin zaizu atseginago, ofizina baten egotea ala 30 haurren parean?** - Ezin da konparatu; bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu.
- **Gaurko gaztetxoek zer irabazi dute duela hamabost urtetakoekin konparatuz?** - Naturaltasuna eta altuera.
- **Eta galdu?** - Zenbait kasutan, iparra.
- **Alderdi politikoak ala mugimendu sozialak?** - Agian biak beharrezkoak izango dira, baina ni momentu honetan mugimendu sozial batean sartuta nago.
- **Elgoibartar gurasoak kezkatzen al dira beraien umeetaz?**
- Bai, batez ere disziplina aldetik eta paga eskatzen dietenean.
- **“Frakaso eskolar” deritzona noren eta zeren esku dago konpontzea?** - Denon eskutan dago. Baina lehenengo gauza zer den argitzea da.
- **Futbolaren afizioa neskengan sortzearen aldekoa al zara?**
- Afizioa bai, baina profesionaltasunaren kontra nago.
- **Herri eskolan euskara ikasten duten haurrek erabiltzen al dute gero jolasorduan?** - Bai, batez ere txikiek.
- **Liburu bat idaztekotan, zertaz idatziko zenuke?** - Orain, agian ipuin bat.
- **Pertsonen ezaugarriak aldatzen al dira urteetan zehar?**
- Azalekoak bai, baina barrukoak finkatuta daude.
- **Nola ikusten duzu zure burua hemendik 35 urtetara?**
- Zaharrago baina espero dut betiko izpiritu kritikoarekin.
- **Zein galderari erantzun zenuke gustura?** - Edozeini.

Myriam Aldazabal

BERTSOTAN

HAURTZAINDEGIA

Doinua: Betroiarena

Haurtxoekin zer egin...
daukat gai bezala.
Hurtzaindegiak dira
aukera normala.
Batzuk nahiago dute
neskameen itzala.
Ta nik eman behar dut
iritzi apala.
Zuretik ezpala
ez al da ba hala?
familia dala
zaindari ideala.
Nere ustetan aitak
zaindu zitzala (bis)

Jon Barandiaran

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



**URKIDI
AHOLKULARITZA**

ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

KATIUSKA
T a b e r n a

Errosario 28. Tel. 74 0038 ELGOIBAR

Hiru-Iturri garbitzeko mendi irteera

Hiru-Iturriren egoera tamalgarria dela eta, Gazte Asanbladak mendi irteera antolatu du astelehena, hilak 11rako. Proposamena egun pasa egitea da Hiru-Iturriko ingurua garbitzen duten bitartean. Ibilibidea Plaza handia, San Pedro, Hiru-Iturri, San Migel, Elgoibar izango da. Irteera goizeko 9etan izango da. Nahi duenak parte har dezake garbiketari.

Zonaldeko ehiza txapelketako emaitzak

Pasa den igandean, hilak 3, txakurrarekin lagundutako ehiza txapelketa jokatu zen San Migel auzoan. Saikapena honela geratu zen:

- 1- Aitor Garitagoitia, 3 faisai eta 4 eper "La Union"
- 2- Mauricio Vicuña, 2 faisai eta 3 eper "La Union"
- 3- Valentin Ostiategi, 2 faisai eta 2 eper "Eibarko Diana"

Txapelketan 6 ehiztarik hartu zuten parte. Guztira 15 faisai eta 15 eper askatu ziren, hauetatik 21 hegazti ehizatu zirelarik.

Era berean, Elgoibarko herriari jakinarazten zaio faisaiak eta eperrak askatuko direla ehizatu daitezten. Hegaztiok ehizatzeke egunak honoko hauek izango dira: ostegunak, larunbatak, igandeak eta jai egunak.



Martin Lopez de Larrainzar:


"Atletismoan zure burua gainditzen saiatzen zara"

-Nolatan sartu zinen atletismoaren munduan? -Soldaduzkan hasi nintzen. Denbora librean bertan geneukan atletismo pista batean entrenatzen nuen. Gero, lanik gabe nengoen eta zeozer egiteagatik korritzen jarraitu nuen. Donostian maratoia zegoela jakin nuen eta hura izan zen nire lehen karrera.

-Lehenago beste kirolik egin al zenuen? -Futbolearen aritu nintzen eta eskolan korritzea gogoko nuen. Betidanik gustatu zait saltaka egitea.

-Urtean zehar zein lasterketan aritzen zara? -Herri mailako lasterketan; maratoi erdietan, triathloietan eta duathloietan ere bai. Ezagunena beharbada Behobia-San Sebastian lasterketa izango da. Aurten 1:13:58 segundutako nire marka hautsi nahi dut.

-Aurten munduko kopa jakotuko da Donostian. Parte hartu behar al duzu? -Ez dut uste, ez diot neure buruari planteiatu ere egin. Azken aldian lasterketa askotan ibili naiz eta ez dut joatearekin pentsatu. Orain arte ia urtero joan naiz, askotan osorik korritu ez arren. Parte hartzeagatik joaten naiz.



-Lasterketaren batean espezialista al zara? -Gehien gustatzen zaidana 20-21 kilometrotako lasterketa da; maratoi erdia, alegia. Ez dakit maratoi erdia hobetoen doakidana denentz, baina gehien huraxe gustatzen zait.

-Zein ezaugarri behar dira lasterketa hori korritzeko? -Nik ordubetz entrenatzen nuen lehen, baina orain triathloia egiten dudanez, igerian eta bizikletan ibiltzen naiz. Egunero ordubetz korrika eginda, ondo dago maratoi erdia korritzeko.

-Ba al duzu helbururik atletismoan? -Beti zure burua gainditzeko ahalegintzen zara. Korrika egitea horrelakoa da, beti hobetzen saiatu behar da.

● **Adina:** 28.

- **Asfaltoa ala belarra?** Belarra.
- **Hobbyrik?** Kirolaz gain, musika eta puzzle handiak.
- **Ilea, motza ala luzea?** Lehenago luzea, orain, berriz, motza.

HISPANIA  ZURICH

C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

 INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Fotero

OKINDEGIÅ
OPILDEGIÅ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Aldaketak izango dira hilaren 17an hasiko den futbito txapelketan

Iazkoarekin Elgoibarko Txapelketak 13. edizioa bete bazuen, aurtengoa 14.a izatea espero zen. Baina betidanik txapelketaren antolaketaz arduratu direnek irailean jadanik abisatu zuten beraiek ardura horri uko egiten ziotela, aurreko urteetan izandako zenbait arazo zirela eta. Egia esan, honako hau azken urteotan errepikatu den abisua izan bada, aurten ez da abisuan bakarrik gelditu.



Futbito txapelketa desagertzeko arriskuan egon da.

Beraz, hasiera batean futbitorik gabe geldituko ginela zirudien eta parte hartzaileen artean kezka nabaria sortu zen. Kezka horrek bultzatuta zenbait gaztek Udaltexeko Kirol Zerbitzuko arduradun den Ramon Mujikarengana jo zuten soluzio baten bila. Ramon Mujikak adierazi zenez, berari ezinezkoa zitzaion txapelketaren antolaketaz arduratzea

baina argi utzi zuen Udaltexea beti egon dela eta egongo dela prest laguntza eskeintzeko, baloiak nahiz sareak eskeiniz.

Gauzak honela, eta txapelketa desagertzeko arrisku larria ikusiz, Agustinek eta Javik, urte askotan zehar txapelketan aritutako bi gaztek, futbito martxan jartzeko bilerara bat antolatu zuten hilaren 4rako. Bertara talde askoren ordezkariak ager-

tu ziren, baina ez behar ziren beste. Beraz, hilaren 8rako beste dei bat luzatzea erabaki zen, bertan oinarriak finkatzeko.

Berrikuntzak

Arduradun berriek asteleheneko bileran azaldu zuten, 24 talde behar dira gutxienez txapelketari hasiera emateko eta beraien asmoa hilaren 15ean lehengo partidua jokatzeko da. Baina aldatarik nabarmenena

arbitraiari dagokio. Aurreko urteetan antolatzailerak ziren arbitratzen zutenak, baina aurtengo ediziorako eredu ezberdin batean pentsatu dute Agustinek eta Javik. Horrela, ihardunaldi bakoitzean talde bateko jokalariek arbitratuko dituzte partidu guztiak, txandan txandan talde guztiak izango dutelarik ardura hori.

Edu Sanz



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09


usoa

KAFETEGIA



Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

PUB



elgoibar




Kokoe: Komikiaren munduarekiko lilura

KoKoE

Orain dela hiru urte

sortu zen komiki taldea dugu. Sortzaileak hiru kide baino izan ez arren, hiru urtetan, 22 kide izatea lortu du. Komikiaren munduari lotutako elkarte da; komikiaren aspektu guztiak lantzen dituzte.

1990. urteko azaroan komiki lehiaketa bat ospatu zen Elgoibar mailan. Alberto Garciak, Mikel Cornejok eta Jesus Tadeok, lehiaketako lehen hiru sariak jaso ondoren, Elgoibarren komiki zaletuen elkarte bat sortzeaz hitz egin zuten. Hiruak ados jarri eta Udaletxeko tramiteak bete ondoren elkarteak gauzatu zuten. Ordudanik dexente hazi da taldea. Komikiaren inguruko gorabehera guztien gune da Kokoe elkarteak. Batzuk komiki marrazkilariek dira; erdiak edo; beste batzuk komiki irakurle porrokatuak dira, baina guztiak dira komiki munduaren fanatiko. Komikiaren munduan ateratzen diren notizia, berrikuntza, aldizkari eta abar elkartean jasotzen dute, gero, beraien artean irakurri eta komenta-tzeko. Inguruko komiki elkarteekin ere harremana dute. Elkarteko kide izateko, beraz, ez da beharrezkoa komiki marrazkilaria izatea, nahikoa da komiki zaletu izatea. Elkarteko kide izanez gero, edozein ekintzatan parte hartzea da taldeki-deari eskatzen zaiona.



➔ Kokoeko zenbait kide, bapateko komiki saioa egin zuteneko aldi batean.

Barne funtzionamenduari begira, egiten duten lanarekin finantzatzen dituzte gastuak. Edozein estamentutik enkarguren bat jasoz gero, taldean egiten dute lana eta Kokoe izenarekin sinatzen dute.

Gaur egun, nazional mailako komiki lehiaketaren antolakuntzan dabilta lanean. Abenduan izango da eta bi urtetik behin antolatzen dute. Aurten, bigarren edizioa izango da eta lehendabizi egin zutenean baino kanpoko lan gehiago jasotzea espero dute, lehiaketa lehen baino ezagunagoa baita orain. Tarteko urtean, erakusketa bat antolatzen dute eta komiki munduko pertsonaia ezagunak ekarri ohi dituzte. Herriko gainontzeko taldeen eskaerei erantzuteaz aparte, komiki fanzine bat kaleratzeko gogoarekin dabilta baina, finantza iturri eza dela eta, ez dute kaleratze-

rik lortu. Taldeko beste kide batzuk Elgoibarko historia komikitan kontatuko duen liburua egiten dabilta, baina uste baino beranduago bukatuko omen dute, marraztu behar dituzten lekuak eta parajeak xehetasun handiz egiten ari baitira. Behin liburua bukatu eta gero, doan banatzeko asmoa dute.

Elgoibarko liburutegiko komikiak erostez arduratzen dira Kokoekoak eta Deba Behean, Elgoibarko liburutegia da komikiak dituen bakarra.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1990

Kide kopurua: 22

Iharduera: Komikia

Arduraduna: Alberto Garcia

Helbidea: Santa Klara 13 esk.

ORTUETA

Zapatak eta poltsak

San Frantzisko 2 ☎ 74 04 95


KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Euskararen normalizaziorako proposamenak aurkeztu ditu Siadecok

Pasa den asteartean, hilak 5, SIADECO enpresako langilea eta azterketa soziolinguistikoaren arduradun den Kike Amunarriz izan genuen Elgoibarko Kultur Etxean. Berrogeita hamar lagunen aurrean Elgoibarko egoera soziolinguistikoa kontutan izanik beraien ustetan zer egin beharko litzatekeen azaltzera etorri zen.



→ Kike Amunarrizek herriko egoeraz hitz egin zuen.

Egungo egoeraren azalpen txiki bat egin ondoren, Udalak eta Elgoibarko Izarra Elkartek hartu beharko lituzketen ardurak eta funtzioak azaldu zituen. Ondoren, sail edo arlo ezberdinetan lanean hasteko urratsak zeintzuk diren aipatu zituen. Bi ordutako luzapena izan zuen saioari entzuleen galderei erantzunaz eman zitzaion bukaera.

Elgoibarko Izarraren soziolinguistika ikastaroa

Elgoibarren Euskarak bizi duen egoera ezagutu ondoren eta irtenbideak mahai gainean daudelarik, Elgoi-

barko Izarrak bost saiotako soziolinguistika ikastaro bat antolatu du. Ikastaro honen helburua euskalgintzan ari direnei marko edo ikuspegi teoriko bat eskaintzea da. Halaber, orain artean euskararen aldeko lanean izkutuan egon direnak animatzea, ikastaro honen nahia ere bada.

Dagoeneko kasik ehun lagunek eman dute baietza ikastaroan parte hartzeko eta Elgoibarko Izarratik esan digutenez oraindik izena emateko aukera badago. Ikastaroa dohainik da eta ostegunetan edo larunbatetan azaltzeko aukera izango da.

■ **Mertxe Sueskun eskultore elgoibartarrak** Granadako Alpujarran abangoardiako ehungintza arte erakusketa batean hartuko du parte. Izan ere, bertan egongo den Euskal Herriko ordezkari bakarra izango da. Honetaz gain, Bilbon antolatutako nazioarte mailako erakusketa batean ere hartuko du parte. Urriaren 29ra arte Mertxeren lanak beste 18 eskultoreren lanekin batera "Al Hilo del Arte" izeneko erakusketan egongo dira ikusgai. Lanak erakusgai daude "Berta Belaza" galerian (Arrikibar plaza, 5).

■ Zeramikak, oleoak, akuarelak, marrazkiak eta esmalteak ikusgai Kultur Etxean:

Ostiraletik, hilak 8, zabalik dago Egur eta Lurki arte lantegiek antolatutako erakusketa. Kultur Etxeko erakustaretoan ikusgai egongo dira hilaren 24ra arte, iazko ikasturtean zehar Lurki eta Egur lantegietan egindako lanak. Batetik, Lurki lantegian haurrek egindako zeramikak egongo dira eta bestetik, Egur lantegian egindako oleoak, akuarelak, marrazkiak eta esmalteak. Erakusketaren ordutegia iluntzeko 7etatik 9etara bitartean izango da.




Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

9 Larunbata

05,30 PIEDRAFITA-PANTI-COSARA IRTEERA

Antolatzailea: Morkaiko
Irteera tokia: Plaza handia

10,00 FUTBOLA

Elgoibar-Urola (Infantilak)

Tokia: Mintxeta

16,30 FUTBOLA

Elgoibar-Arrasate (Kadeteak)

Tokia: Mintxeta

**16,00-20,00 TELERADIES-
TESIA IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea

10 Igandea

10,00 FUTBOLA

Urki-Arrasate (2. errejionala)

Tokia: Mintxeta

11 Astelehena

**9,00 HIRU-ITURRIRA
IRTEERA**

Irteera tokia: Plaza handia
Antolatzailea: Gazte Asanblada

12 Asteartea

12,00 FUTBOLA

Elgoibar-Arrasate (Neskak)

Tokia: Mintxeta

12,00 FUTBOLA

Elgoibar Haundi-Urola

Tokia: Mintxeta

14 Osteguna

**19,00-21,00 SOZIOLINGUISTI-
KA IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**ERROSARIO KALEKO
JAI EGITARUA**

**Urriak 8 ostirala TXIKI
EGUNA**

5,30: Haurrentzako jokuak:
Itsulapikoak, zaku lasterketa eta patin
lasterketa.

8,15: *Itxaropena* abesbatzaren
kontzertua.

9,15: Afari herrikoia kalean, "Duo
Plaentxi" eta Dakintarekin. Izena
ematea Untzon eta Gorostizan.

Urriak 9 larunbata

12,00: Plazako frontoian, Lagunak
pilota elkarteak antolatuta, infantil
mailako esku pilota partiduak.

Ondoren, "Elosuko Reyes Azkoitia
Andrea" pilota txapelketa: Fernando
Uriarte, "Olinpik" en aurka.

Urriak 10 igandea

12,30: San Bartolome elizan,
Errosario kalean hildakoen aldeko
meza.

Jarraian: Errosarioko Amabirjinaren
parean kaleko nagusiei omenaldia.
Ohizko aureskua dantzatuko da
Haritz Dantza taldearen eskutik.

Ondoren: Lunch-a omenduei.

Jaiak bukatzeko: Txistularien Udal
Bandak "Agur Jaunak" joko du.

DEITU EZAZU HOTZA HELDU AURRETIK


LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:

- hotza
- haizea
- hautsa
- zarata
- polena

SARTZEN BAZAIZU...

EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR



*Altzairu inoxidablezko
burleteak betirako dituzue.*

- ▲ Edozein ate edo leihotarako
- ▲ Leihoak aldatzea baino 10 aldiz merkeago
- ▲ Berogailu gastuetan %30 gutxiago
- ▲ Leihoak ere konpontzen ditugu

**OBRARIK GABEKO
INSTALAZIO AZKARRA**

glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

74 30 94 - 74 43 54

Etxebizitzak

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu
Tel. 74 09 44

Mutil formal gela bila dabil. Lo egin eta arropa garbitu. Zentrikoa. Tratu familiarra.
Informazioa, Jauregi Inprentan. Felipe.

Etxe bat salduko nuke. 100 m2 eta gela guztiak kanpora ematen dute. Urasandin.
74 42 65 Amaia

Lana

Frantzeseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantzea naiz eta titulua dut. Emakumeekin mintzamen lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. Euskeraz eta erderaz.
74 23 01 Jokin

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Marrazketa Teknikoan arazok baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei
Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira

O.H.O.ko klase partikularrak emateko prest nago. Euskeraz badakit.
Ainhoa 74 36 39 / 74 05 33

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
74 13 11 Javier

Haur bat zaintzeko prest nago. Begirale bezala esperientzia.
Lorea 74 28 53

Salerosketak

Bitrina bat saltzen dut, perfil eta urre brillodun ertzarekin. Neurriak: 190 x 110 x 40
Deitu: 74 28 32

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km.
Tel. 74 28 32

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu.
74 39 89 Rufina

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak.
74 04 59

Garaje itxi bat saltzen dut. Santa Ana 46an. 14 m2.
Tel. 74 28 32

Motxila bat salgai. Neurri ertaina, poltsikoekin alboetan eta handitzeko posibilitatearekin. Prezio interesgarria.
74 26 09 Roberto

SEAT MARBELLA SS AL salgai. 30.000 km.
Deitu 78 70 30

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, platina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta.
Deitu 74 03 55 Iñigo

Pastor aleman arrazako txakur kumeak saltzen ditut. Pedegree . Jatorri ezinhobekoak.
74 41 32 Fernando

Kontaktuak

Donostian pisua konpartitzeko neskak behar dira.
Deitu 74 08 72

SEIKO markako erloju bat galdu dut King-kongetik Lojantzira bitartean hilaren 23an
Mesedez deitu, 74 12 23

NAGUSIEN II. ETXEGIÑA BERTSO PAPER LEHIAKETA

OINARRIAK

- Elgoibarren jaio, bizi edota ikasten dutenentzat.
- 18 urtetik gorakoentzat
- Gaia: "La ruta del bakalao"
- Bertso kopurua: Gutxienez 6 eta 8 gehienez
- Neurria eta doinua: Norberaren gustura eta abilidadera
- Sariak:
 1. 30.000 pta eta txapela
 2. 20.000 pta.
 3. 10.000 pta.
 (Parte hartzen duten guztiei afaria)
- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 3. Elgoibarko Izarra Elkartean.

Lanak bina alez (bi kopia) aurkeztuko dira kartazalean lehiaketaren izenburua ipiniaz. Kartazalaren barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, telefonoa eta egilearen ezizena.



ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA K.E.
BERTSO ESKOLA



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



SEAT TOLEDO



Orain SEAT TOLEDOk merkatuko baldintzarik hoberenak eskaintzen dizkizu

Ez uko egin ezeri. TOLEDOak aparteko prestakuntzak eta puntako teknologiak duen kontsumoa eskaintzen dizu. Dena zure neurrirako ekipamenduarekin:

- ABS freno sistema. -Direkzio lagundua. -Aire egokitua. -Leiho igogailu elektrikoak.

Kotxe eder bat oso prezio onean. Ekonomiaz disfruta dezazun. Aldatu kotxea. Ez bizimodua.

Nahiago baduzu, FISEATEk eskaintzen dizun ordainketa era aprobeatza dezakezu.

SEAT
Bai

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42. EIBAR